

## PROTOKOLO OROKORRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FISKALTZA NAGUSIAREN ETA KONTSUMOBIDE-KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUAREN ARTEKOA

### BILDU DIRA

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren aldetik, María del Carmen Adán del Río andrea, maiatzaren 3ko 330/2022 Errege Dekretuaren bidez izendatua, Álvaro García Ortiz Estatuko fiskal nagusiaren ordezkari gisa, zeina abuztuaren 2ko 675/2022 Errege Dekretuaren bidez izendatu baitzen (2022ko abuztuaren 2ko BOE, 184. Zk.), Estatuko Fiskal Nagusiak emandako protokoloa sinatzeko eta Fiskaltzak Espainiako lurralde osoan duen ordezkari eta goi-buruzagitza, Fiskaltzaren Estatutu Organikoa arautzen duen abenduaren 30eko 50/1981 Legearen 22.2 artikulua emandakoa, egikaritzeko berariaz eskuordetzen duen 2023ko abenduaren 14a datako dekretuaren bitartez.

Beste aldetik, Javier Hurtado jauna, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua izendatzeko lehendakariaren irailaren 7ko 30/2020 Dekretuaren bidez izendatua, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren (aurrerantzean, Kontsumobide) egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuak ematen dizkion eskumenak baliatuz.

Ordezkatzen dituzten organismo edo erakundeen izenean esku hartzen dute, Protokolo Orokorreko alderdiak aintzat hartuta (aurrerantzean, Alderdiak), eta Protokolo Orokor hau sinatzeko nahikoa eskumen eta gaitasun juridiko aitortzen diote elkarri.

### ADIERAZTEN DUTE

I. Fiskaltzaren eginkizuna da justiziaren ekintza sustatzea, legezkotasunaren, herritarren eskubideen eta legeak babestutako interes publikoaren defentsan, ofizioz edo interesdunek eskatuta, bai eta auzitegien independentzia zaintzea eta haien aurrean interes soziala asetzen saiatzea ere. Estatuko Fiskal Nagusia (aurrerantzean, EFN) izango da Fiskaltzaren buru nagusia eta Espainiako lurralde osoan izango du ordezkari.

II. Bereziki, Fiskaltzak legitimazio oso zabala du, indibiduala eta kolektiboa, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari dagokionez, Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 11.5 eta 15.1 artikuluen arabera.

III. Kontsumobideri dagokio, eskumen autonomikoen esparruan, kontsumitzaileen eskubideak babestu eta sustatzeko eta kontsumitzaileak babesteko prozedura eraginkorrak ezarri eta bultzatzeko erregulazio-proposamena egitea.

IV. Europako Batzordearen 2020-2025 aldirako Kontsumitzaileen Agenda Berriaren helburuak honako hauek dira: trantsizio ekologikoek eta digitalek planteatzen dituzten erronka berriei aurre egitea kontsumitzaileak gaitzeko eskubide eta aukerei dagokienez; kontsumitzaile kalteberak egoera ekonomiko berrietan modu eraginkorragoan babestea; eta nazioarteko lankidetzaren gero eta garrantzi handiagoari eta haren

aplikazio eraginkorrari heltzea, kontsumitzaileek mundializazioaren aroan dituzten eskubideak bermatzeko. Halaber, Kontsumoaren Esparru Estrategikoak, Kontsumoaren Konferentzia Sektorialak 2022-2025 aldirako onartutakoak, kontsumo-politikek pertsonen bizitzako askotariko eremuetan eskubideak defendatzeko duten zeharkakotasunaren garrantzia azpimarratzen du, eta, jakina, bat egiten du Kontsumitzailearen Europako Agenda Berriaren garapenarekin.

V. Protokolo orokor honek aukera ematen du erakunde sinatzaileen arteko lankidetzaz bideratzeko, helburu komun bat lortze aldera; beraz, bide egokia da kontsumitzaileen babesean inplikaturako eragileen gizarte-lankidetzaz zabaltzeko.

VI. Kontsumitzaileen babesa interes publiko komuna da alderdientzat, eta Kontsumobideren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusiaren esku uzten da, arau bidez.

VII. Testuinguru honetan, Kontsumobideek kontsumitzaileen eskubide legitimoen defentsaren arloan lankidetzaz sistema erregular eta egonkor bat ezartzea proposatzen dio Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusiari, honako arau hauek ezarritako esparruaren barruan: 2/2010 Zirkularra, 2010eko azaroaren 19koa, Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko Fiskaltzak arlo zibilean esku hartzeari buruzkoa; 4/2016 Jarraibidea, 2016ko abenduaren 22koa, Espezialitate zibileko fiskal delegatuaren funtzioei eta desgaitasuna duten pertsonen babes juridikoari buruzkoa; eta 2/2018 Zirkularra, 2018ko ekainaren 1koa, Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen babes juridikoaren arloko jarraibide berriei buruzkoa.

VIII. Ondorioz, alderdiek protokolo orokor hau formalizatzen dute, honako hauen arabera:



## KLAUSULAK

### Lehenengoa. - Xedea.

Protokolo orokor honen xedea da alderdien arteko lankidetza sustatzea, kontsumitzaileen eskubide legitimoak babesteko neurrien eraginkortasuna areagotzen lagunduko duten jarduketak egiteko.

Lankidetza-esparrua tresna juridiko egokien bidez ezarriko da, kontsumitzaileen eskubideen bermea sustatzeko jarduera komunen bidez.

Protokolo honen lankidetza-esparruaren helburua kontsumitzaileen eskubide legitimoen urraketari aurre egitea eta prebenitzea da, bosgarren klausulan aurreikusitako Batzordeak zehazten dituen jarduketan bidez eta, bereziki, honako ekintza hauen bidez:

- Komunikazio arin baten bidez, kanal bizkorrak bilatuz, hala nola posta elektronikoa edo informazioa jasotzeko beste bitarteko elektronikoko batzuk, iruzurrezko edo kontsumitzaileen interes orokorraren aurkako jarduerak prebenitzeko eta borrokatzeko, alderdi bakoitzak modu autonomoan eta irizpide-askatasun osoz balioetsiz jasotako informazioa eta jarduteko jarraibideak.
- Aurreko puntuan adierazitako komunikazioen ondorioetarako, alderdi bakoitzak ordezkari instituzionalak izendatuko ditu, harremanetarako modu bat identifikatuta.
- Aldeek lagundu ahal izango dute kontsumitzaileen babesarekin lotutako prestakuntza-ekintzak egiten, jardunaldien, mintegien, biltzarren, argitalpenen, buletinaren edo xede horretarako egokia den beste edozein bideren bitartez. Esparru horren barruan, alderdiek prestakuntza espezifikoko planak diseinatu ahal izango dituzte, iruzurrezko jarrerak edo kontsumitzaileen interes orokorrari kalte egiten diotenak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko, bereziki kontsumo-teknikarien prestakuntza juridikorako, administrazio publikoei, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteei eta fiskalei lotuta.
- Alderdiek salaketei eta erreklamazioei buruzko informazioa trukatu ahal izango dute, baldin eta iruzurrezko edo kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes orokorraren kalterako jokabideren bat hautematen bada.
- Alderdiek bateratu ahal izango dituzte beren eskumenak baliatuz egiten dituzten jarduketak.
- Alderdiek lagundu ahal izango dute kontsumitzaileen interesak babesteko ekintza kolektiboak gauzatzen.

Protokolo orokor hau berak ezarritakoaren arabera arautzen da, eta, subsidiarioki, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak xedatutakoaren arabera, aplikagarria den guttian.

Hitzarmena ez denez, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.1 artikulua bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, ez da juridikoki loteslea, eta ez dakar alderdien artean konpromiso juridiko zehatz eta galdagarririk formalizatzea.

#### **Bigarrena. - Lankidetzaren printzipioak.**

1.-Protokolo honetan aurreikusitako lankidetzaren borondatezkoa eta juridikoki loteslea izango da, eta emandako informazioa isilpekoa izango da.

2.-Protokolo hau aplikatzeak ez du eragozten alderdi bakoitzak baliatzea kontsumitzaileen interesa hobeto defendatzeko egokitzat jotzen dituen ekintzak garatzeko arau bidez esleituta dituen ahalmenak.

3.-Alderdietako batek emandako informazio guztia isilpekoa izango da, eta alderdi hartzaileak konfidentziasunez tratatuko du, Estatuko eta Europar Batasuneko araudi aplikagarria eta, bereziki, datuen babesari buruzko araudia errespetatuz.

4.-Alderdiek Protokolo Orokor hau aplikatuko dute, helburu komunaren arabera.

#### **Hirugarrena. - Jarraipen Batzorde Misto**

Protokolo Orokor hau aplikatzeko, ebaluatzeko, egoki interpretatzeko eta sor daitezkeen desadostasunak konpontzeko, Jarraipen Batzorde Misto bat eratuko da (aurrerantzean, Batzorde Misto). Batzorde hori lau kidek osatuko dute; alderdi bakoitzetik bi.

Ordezkatzen duen erakundeak izendatuko du Batzorde Mistoko kide bakoitza, eta Kontsumobidek izendatutako pertsona izango da batzordeburua.

Batzorde Mistorako deia presidenteak egingo du, eta protokolo orokor hau sinatu eta hurrengo sei hilabeteetan bilduko da Batzordea lehen aldiz. Ondoren, Batzordea urtean bi aldiz bilduko da, ohiko moduan, eta ezohiko moduan ere bildu ahal izango da, edozein alderdik eskatzen duen gutzietan.

Aztertu beharreko gaien arabera, Batzorde Mistoak:

- Urteko jarduketaren plan bat egin beharko du lankidetzaren eduki zehatza garatzeko. Plan hori protokolo honetan aurreikusitakoaren arabera arautuko da, eta, modu osagarrian, urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. kapituluko hirugarren atalean xedatutakoaren arabera, administrazio publikoetako kide anitzeko organoei dagokienez.

- Protokolo Orokor honen xedea behar bezala betetzeko beharrezkoak diren lantaldeak sortuko ditu, eta bileretan parte hartzera gonbidatu ahal izango ditu beste ministerio-sail batzuetako ordezkariak, autonomia-erkidegoetakoak, toki-erakundeetakoak, enpresa- eta sindikatu-erakundeetakoak edo egokitzat jotzen dituen gizarte-eragileetakoak, zeinek hitza izango baitute, baina botorik ez.
- Akordioaren aplikazioa ebaluatuko du, aldizka, planteatutako helburuen arabera.
- Akordioa hobetzeko eta berrikusteko egokitzat jotzen dituen proposamenak egingo ditu.
- Urtero txosten bat egingo du egindako jarduerekin.

Batzorde Mistoko idazkaria Kontsumobideko funtzionario bat izango da; hitza izango du, baina botorik ez.

Batzorde Mistoaren bilerak aurrez aurre edo bitarteko telematiko eta/edo elektronikoen bidez egingo dira.

#### **Laugarrena. - Finantzaketa**

Protokolo orokor hau sinatzeak ez dakar, berez, inolako kontraprestazio ekonomikorik. Alderdiek, beren baliabideekin, beren gain hartuko dituzte urtero egin nahi dituzten jarduketan kostuak, Batzorde Mistoak erabakitakoaren arabera eta gastu publikoa inola ere handitu gabe.

#### **Bosgarrena. - Protokolo orokorra aldatzea.**

Protokolo orokor hau aldatu ahal izango da, alderdi guztien adostasunez, haren xedea hobeto gauzatzeko beharrezkoa denean, haren edukiari eragiten dioten lege-aldaketetara egokitzeko edo Espainia kide den nazioarteko instituzio edo erakundeek haren xedearekin lotuta ematen dituzten gomendioak edo printzipioak txertatzeko.

Protokolo Orokorraren aldaketa aho batez eta idatziz adostu beharko dute alderdiek, eta akordio hori Eranskin batean formalizatuko da.

#### **Seigarrena. - Protokolo Orokorra garatzea.**

Protokolo orokor hau, hala badagokio, garatu eta zehaztu ahal izango da, beharrezkoak diren tresna juridikoen bidez. Tresna horiek adostasunez onartu eta idatziz formalizatu beharko dira.

Hitzarmen horiek sinatzeko, urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritako legezko izapideak bete beharko dira.

### Zazpigarrena. - Publizitatea eta hedapena.


Alderdiek konpromisoa hartzen dute beren artean emandako lankidetzan nabarmentzeko, Protokoloan aurreikusitako jarduerak zabaltzeko egiten dituzten jarduera guztietan. Horretarako, bai dokumentazioan, bai prozesu honi lotutako komunikazio-elementuetan, beren presentzia instituzionala nabarmentzeko konpromisoa hartzen dute, dela logotipoen bidez, dela haietako bakoitzaren erakunde-nortasunaren irizpideei jarraituko dieten beste ikus-elementu batzuen bidez.

### Zortzigarrena. - Indarraldia eta amaiera.


Protokolo Orokorra sinatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta urtebeteko iraupena izango du, data horretatik zenbatzen hasita. Isilbidez luzatuko da iraupen bereko aldietan, gehienez ere lau urtera arte, salbu eta alderdietako edozeinek salatzen badu eta adierazten badu ez duela berri nahi, hasieran hitzartutako epea edo edozein luzapen amaitu baino hamabost egun lehenago.

Protokolo orokor hau suntsiarazteko arrazoiak izango dira haren indarraldia igarotzea, bi aldeak ados egotea edo protokoloaren xedea eragozten duen ezinbesteko kasua gertatzea.

### Bederatzigarrena. - Datuen babesa



Hitzarmen honetako alderdien ordezkarien datu pertsonalen tratamendua datuen babesaren arloan aplikatzekoa den araudiaren arabera egin beharko da, eta, bereziki, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) xedatutakoaren arabera. Ordezkarien datu pertsonalak, alderdiek ematen dituztenak (identifikazio-datuak, harremanetarako datuak, eta datu akademiko eta profesionalak, eta ordezkartzakoak edo ahalordetzekoak), Hitzarmen hau formalizatzeko eta betearazteko soilik erabiliko dira, DBEOren 6.1 (b) artikuluan aurreikusitakoa oinarri hartuta, eta interes publikoaren aldeko misio bat betetzeko, DBEOren 6.1 (e) artikuluen babesean.



Tratatu beharreko datuak administrazio publikoei, organo judizialei eta kontrol-organoei jakinarazi ahal izango zaizkie, legezko betebeharrak betetzeko, eta, beharrezkoak izateari uzten diotenean edo ezerezteko eskubidea baliatu den kasuetan, blokeatuta mantenduko dira, tratamenduak eragin ditzakeen erantzukizunei erantzuteko, harik eta preskripzio-epea bete arte; epe horren ondoren, datuak ezabatu egingo dira.

Datuen titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, transferitzeko eta eragozteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta DBEOn jasotako gainerako eskubideak ere, beren nortasuna behar bezala egiaztatuta, honela:

- Kontsumobiden: aurrez aurre, posta arruntez (Done Jakue hiribidea 11, 01002 Vitoria-Gasteiz) edo elektronikoki, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen inprimakia erabiliz.
- Fiskaltzan: posta arruntez, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltzari zuzenduta (Barroeta Aldamar kalea 10, 1. solairua - 48001 Bilbao, Bizkaia); posta elektronikoz: [fiscaliasuperior-paisvasco@justizia.eus](mailto:fiscaliasuperior-paisvasco@justizia.eus); edo web helbide honen bidez: <https://www.fiscal.es/ejercicio-de-los-derechos> ante la Fiscalía de la CA País Vasco".

Alderdiek klausula honetan aurreikusitako baldintzen berri emango diete interesdunei, aplikatzekoa den araudiak komunikazio hori eskatzen ez duen kasuetan izan ezik, eta ziurtatuko dute beren langileek datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzen dutela.


Klausula honen lehen paragrafoan aipatutakoez besteko datu pertsonalak alderdien artean komunikatzen badira hitzarmena gauzatzearen ondorioz, datuen babesaren arloan aplikatu beharreko araudian xedatutakoa bete beharko da, eta klausula honetan aurreikusitakoaren arabera egin beharko da tratamendua. Nolanahi ere, komunikazioa egin baino lehen, igorleak horren berri emango die datuen titularrei (salbu eta datu pertsonalen babesaren arloan aplikatzekoa den araudian aurreikusitako salbuespenen bat aplikagarria bada).

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, Protokolo Orokor hau sinatzen dute jatorrizko bi aletan, baliozkoak biak, goian adierazitako tokian eta egunean.

Bilbo, 2024ko otsailaren 7a



**Javier Hurtado**  
Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko  
Sailburua



**Carmen Adán del Río**  
Estatuko Fiskal Nagusia